

Literatura ▸ LIBURUAK

Trilluelosko itsasoak

BENAT SARASOLA

Dударик ez da azkenaldian euskal gatazka delako horren hezurduraz eraikitako geroz eta literatur lan gehiago azaltzen ari direna. Horren sintoma dira, besteak beste, udazken honetan azaldu diren zenbait liburu eta literatura kritika ere fenomeno hau lan-tzen hasi izana —*Maldetan Sagarrak*—. Ez dakidana da beste hark zioena kasu honetan ere aplika daitekeen; alegia, idazleek aurretik zapal dutako lurretara kritiko eta teorikoak iristen direnean idazleak paraje horiek abandonatu behar bide dituen literatura ona egingo badu.

Jokin Muñozek berriz ere heldu dio euskal gatazkaren inguruan kokatutako narrazio bati. Nobela bi narrazio planok osatzen dute: Trilluelosen gerra aurretik kokatutakoak eta Donostian 2003ko uda bukaerakoak. Hasierako atalean ez da aurkitzen bi planoen arteko loturarik, baina narrazioan aurrera egin ahala irakurleak bien arteko harremanak asmatuz joango da, Gerra Zibilaren eta gaur egunaren arteko paralelismoak ohartaraziz. Jakin-min horrek bul-tzatuturik nobelaren irakurketa ari-

na da oso, azkar joaten dira orriak bata bestearen atzetik. Hori bai, Muñozen literatura ezagutzen duen edonork pentsa dezakeen moduan, sakonean dagoen azpi-doinu moral a edozer gauza da ari-na baino. Areago, uste dut *Antzararen bidea*-n oraindik koska bat gehiago estutzea lortu duela kru-deltasun moralari dagokionez. Izan ere, begiratu laster batean, nobelako bi pertsonaia nagusiak, Lisa eta Jesus, indarkeriaren bikti-ma dira, baina egiazki, biak hala biak errudun sentimendu dorpe batek kolpatzen ditu, eta nekez identifikatuko da irakurleak beraie-kin. Hemen ez dago tarterik-eta errukiarentzako, liburuko pertso-naia guztiak dira hein batean bik-tima eta errudun aldi berean. Kon-takizuneko arindun momentu ba-kanak Gigiren ateraldi umoretsu eta burutsuak dira, baina berehala jabetzen ahal gara sarkasmo-kol-pe horiek azkenean mingostasun moral hori areagotu besterik ez dutela egiten.

Gure artean klabe errealistak hobekien dominatzen dituen idaz-leetakoa da Muñoz, eta nobela ho-rraren adibide ezin hobea da. Egin kontu bestela lekuak nola ezauga-rritu —Donostia, agurearen etxea,



■ 'Antzararen bidea'

Egilea: Jokin Muñoz. **Generoa:** Nobela. **Argitaletxea:** Alberdania. **Urtea:** 2007.

Trilluelos...—, eta pertsonaia nola hezurramitzen dituen. Era be-rean, tradizio errealistari jarraiki, ñabardura txikiarena ere ez da azal-tzen kasualitatez, narrazioaren diegesian garrantzia duelako bai-zik —lehenengo ataleko aurrene-ko hitza «antxetek» izatea dena

esaten du—, eta horregatik infor-mazio ugari zeharka jasotzen ahal da, ezein motako didaktismo-tik urrun.

Arestian aipatu dut nobelak ha-lako intriga bat gordetzen duela bere baitan: nor den agurea zehaz-ki, Igorren iragan hurbila, agurea-ren argazkia, eta abar. Lisa eta Gi-giren eskutik galdera batzuk eba-zen joan daitezke, baina amaierak ez du narrazioa erabat itxita uzten, alderantziz, galdera ugari gera-tzen dira erantzuteke, nobelaren gertakizunei dagozkienak zein gi-za kondizioari dagozkienak. Neu-rrri batean nobela memoriari eta ahanzturari buruzkoa baita, ames-gaizto bihurtzen den norbanakoa-ren memoriarena (Lisa eta Jesus) eta ahanztura kolektiboarena —esanguratsua izena borrotutako *gogoan zaitugu* pintada—. Bide ba-tez, ez nuke aipatu gabe utzi nahi Muñoz irritan aitoroten zaion do-hain bat; euskararena. Ez darabil apaingarri astunik ez eta joskera aldrebesik, zer egingo zaio, bere prosa ulertu egiten da, baina nekez aurki daiteke berearen mailako hizkuntza eraginkor eta zehatzik.

Muñozen ibilbide literario-ko, eta bidenabar, euskal literatura ga-raikideko mugarri bat. Nire zalantza da emaitza bikain honen ondo-tik orain arteko bidea agortu ez ote zaion, nahiz eta hala izatekotan ere, gaitzerdi.

>> bsarasola@berria.info



■ 'Karmel', 260 zenbakia

Argitaratzailea: Euskalerriko Karmelak. **Data:** 2007ko urria-abendua.

Bizente Batiz idazlea gogoratu du *Karmel* aldizkariak 260. zenba-kian, 2007an haren jaiotzaren le-hen mendeurrena ospatu dela kon-tuan hartuta. Luis Baraizarrak ar-tikulu luzea idatzi du Batizen bizi-tzako zertzeladak bilduz, eta Julen Urkizak Batizen idazlanen biblio-grafia osatu du. Batizen olerkiak ere jaso dituzte. Horretaz gain, bes-te gai batzuen inguruko idazlanik ere aurkituko du irakurleak.



■ 'Gure atsoitzak'

Egilea: Xabier Susperregi. **Argitaratzailea:** Oiarzungo Udala. **Ilustraziogileak:** Andoni Odriozola eta J.J. Grandville. **Urtea:** 2007.

Oiarzungo Udaleko Kultura Sai-lak urtero argitaratzen du liburu bat herriko ikasleei ohiturak eta euskara hurbiltzeko asmoz, eta haxe da aurtengoa. Lau ataletan banatuta dago: *Antzinako atsoi-tzak*, *Oiarzungo atsoitzak*, *Azkue-ren atsoitzak* eta *Munduko atsoi-tzak*.



■ 'Zarautz hizketan'

Egileak: Aintzane Agirreberia, Belen Maiz, Fernando Muñozguren, Asier Sarasua eta Miren Zabaleta. **Argita-ratzailea:** Zarauzko Udala. **Urtea:** 2007.

Zarauzko ahozko hizkera jasotzen du liburuak. Honako atal hauek ditu, sarrazer eta bibliografiak gain: *Ezaugarri fonetikoak*, *Izena-ren morfologia*, *Aditzaren morfo-logia*, *Sintaxia*, *Lexikoa*: hizkera eta aldareak, *Zarauzko euskararen kokapena* eta *Zarauztarrak hizke-tan*.

Tiroarra Troian, troiarra Tiron

BIXENTE SERRANO IZKO

Tirokoa Troian, Troiakoa Tiron: badirudi horrela agertzeko dei genetikoak jaso dutela zenbait jen-dek. Xabier Zabaltza saiogilea kasu.

«Liburuxka hau ikuspegi eus-kaldun eta euskaltzale batetik dago idatzirik. Ikuspegi abertzale batetik ere bai? Hori irakurleak erabaki beharko du». Hitz horie-kin hasi da Xabier Zabaltza. Eta bereziki euskaldunoi zuzendurik dauden orrialde hauetan, geure ar-tean darabiltzagun hainbat zur-kaitz intelektual inarrosteari ekin dio. Irakurle askok aise erabakiko dute liburuaren ikuspegia ez dela abertzale. Eta ez gutxi nekez uler-tuko dute haren euskaltzaletasu-na. Hemen nauzuen honen aburuz, guztiz euskaltzale eta abertzalea (abertzale kontzeptua zentzu etimologikoan ulerturik, nik lehe-nesten dudana zentzu) da libu-rua, betiere aitortuz ez direla bi ezaugarri horiek liburuari balioa ematen dioten bakarrak: izan ere, sarri, *anti*-ek, etsaiek, ematen diz-kigute arrazoi franko, geure ikus-puntuak aldatu edo zorrotzera era-mun beharko gintuzkeenak.

Zorionez edo tamalez, ongi ala



■ 'Gu, nafarrok'

Egilea: Xabier Zabaltza. **Generoa:** Saiakera. **Argitaletxea:** Alberdania. **Urtea:** 2007.

gaizki —gaizki seguruenik—, geu-re biziaren urte trinkoak euskal nazionalismoaren baitan nafarra-rena egitera emanda pasatu ditu-gunok, ezin dugu ez ikusiarena

egin *Gu, nafarrok* izenburua duen liburu baten aurrean, are gutxiago Xabier Zabaltzarena baldin bada. Saiakera polemikoa berariaz, eusko-nafarrongan eztabaidaren sua pizteko asmoz, erdo-nafarrei bu-ruzko geure pertzepzioen inguru. Deseroso eta dudakor sentiarazi nahi gaitu landu ditugun altzari teoriko eta ideologikoein, egu-nen baterako amesten dugun egongela patxadatsua hornitzeko xedez landu horiekin.

Auskalo zer egiten gaituen na-far, administrazio baten menpe jaio izanaz edo bazka lortu dugu-neko soroaz aparte. Nafartasuna-ren osagaiak azare eta materialis-mo horiek baino zer bait sakonago, sendoago, errotuagoa dira, bai eus-ko bai erdo-nafarren aburuz. Fo-ruak omen dira horren osagai bat, bakarra erdo-nafarrentzat, euska-rarekin batera baina bigarren mai-lakoa eusko-nafarrentzat; ondorio ezberdinekin, zein aldean: foruek bereizten gaituzte Euskal Herri-tik, Espainiarekin batzeko (erdo-nafarren ideietan); eta euskarak eta foruen erranahi historikoak batzen gaituzte Euskal Herri gisa, Espainiatik aldentzeko (eusko-na-farrentan). Bada, bi osagai nagi-si eta ustez objektibo horien kon-tingentzia historikoa eta erlatibis-

moa ikustaraztera doaz Zabaltza-ren argumentuak: foruen iraupe-naren kontingentzia historiko hutsa azpimarratzera, eta euskararen estatuta, *lingua navarrorum* gisakoa, erlatibizatzen historian zehar. Sakrilegio hutsa, Zabaltza-rena! Tiroarra eta troiarra aldi be-rean, jarrera bakoitza non eta ego-kia ez den tokian.

Kitzikagarriak dira argumentu franko, hausnartu beharrekoak, pentsalari honek ohi dituen beza-la, betiere garapen luzeagoak es-katzen dituzten arren. Hala nola dioenean «talde-kontzentzia bat ez dela oinarritzen osagai objek-tiboetan bakarrik, eliteek osagai ho-riek onarrarazteko duten gaitasu-nean baiziki»; ikertu beharko litza-teke nola baliatu diren elite horiek kazikismoaz ia mende eta erdiko urte luzeetan, baina tira. Bertze ar-gumentu batzuk, aldiz, arinegiak irudituz zaizkio irakurle honi, bai-na horietan ere, tira!

Dena dela, Xabier Zabaltzaren gogoetek, eta zorionez plazaratzen joaten diren bertze batzuek, gehi-ago edo gutxiago asmatuko ote —noren ustean—, baina frogatu ongi frogatzen dute euskaltzaleon munduan eskertzeko nekeak har-tzen ari direla autokritika ildoetan planteamendu berriak ereite alde-ra. Zoritzarrez, ez da ezer horrela-korik ikusten, orainago, erdo-nafa-rren munduan.

>> bserrano@berria.info